

Euskal AEk lortu du Europa 2020 estrategian ezarritako helburua hezkuntza adierazleetan

Okupazio eta pobrezian, berriz, abiapuntuan baino okerrago

Euskal AE 28-Europar Batasuneko mailen gainetik dago Europa 2020 strategiako bederatzi adierazleetatik bostetan, Eustaten datuen arabera. Hezkuntzarekin lotutako zenbaitetan, 2020rako helburua lortu da dagoeneko.

2009ko adierazleen aldean, hobera egin da I+Gn, kliman, energian, hezkuntzan; okupazioarekin eta pobrezia-rekin lotutakoetan atzeraka Euskal AE, Espainia (areago) eta EB bezalaxe, krisiagatik.

1- taula.- 2020 Europa adierazleak

	EB-28		Euskal AE		Espainia	
	2009	2013	2009	2013	2009	2013
OKUPAZIOA						
Okupazioaren tasa (20 urtetik 64ra) (%)						
Guztira	68,9	68,3	68,5	66,2	63,7	58,2
Emakumezkoak	62,2	62,5	61,2	61,9	56,3	53,1
Gizonezkoak	75,7	74,2	75,8	70,4	71,0	63,3
I+G						
I+Gko barne gastu gordina (BPGdaren %)						
	2,01	2,07 ⁽¹⁾	2,00	2,12 ⁽¹⁾	1,39	1,3 ⁽¹⁾
KLIMA ETA ENERGIA						
Berotegi-efektuko gasen emisioak, oinarri urtea 1990 =100						
	83,8	83,1 ⁽²⁾	108,2	101,1 ⁽²⁾	130,1	126,4 ⁽²⁾
Energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumo gordinen (%)						
	11,9	14,1 ⁽¹⁾	7,4	7,6 ⁽¹⁾	13,0	14,3 ⁽¹⁾
Lehen mailako energia kontsumoa, oinarri urtea 2005=100						
	93,2	92,5 ⁽¹⁾	95,2	86,3 ⁽¹⁾	90,7	89,3 ⁽¹⁾
Energiaren azken kontsumoa, oinarri urtea 2005=100						
	93,2	92,8 ⁽¹⁾	95,2	93,1 ⁽¹⁾	89,8	85,1 ⁽¹⁾
HEZKUNTZA						
Garai aurreko eskola-uzte tasa (18 urtetik 24ra) (%)						
Guztira	14,2	11,9	12,6	8,0	31,2	23,5
Emakumezkoak	12,3	10,2	8,5	7,9	24,7	19,9
Gizonezkoak	16,1	13,6	16,6	8,2	37,4	27,0
Goi-mailako hezkuntza maila (30 urtetik 34ra) (%)						
Guztira	32,1	36,8	41,0	44,1	39,4	40,7
Emakumezkoak	35,5	41,0	50,8	52,1	44,9	45,3
Gizonezkoak	28,8	32,6	31,8	36,5	34,3	36,1
POBREZIA (3)						
Pobreziaren edo bazterketaren arriskuan dagoen biztanleria (Hurrengo hiruen bateratzea) (%)						
Lan-intentsitate oso urridun familia-etxeetan bizi diren pertsonak (%)	23,7	24,8	19,3	19,9	26,7	28,2
Transferentzia sozialen ondoren pobrezia-arriskuan dauden pertsonak (%)	10,2	10,3	6,3	9,9	10,8	14,3
Gabezia material larriak dituen biztanleria (%)	16,5	17,0	15,7	15,4	21,4	22,2
	8,4	9,9	2,0	5,8	4,9	5,8

(1) 2012

(2) 28-EB eta Espainia 2011. Euskal AE 2012

(3) 2010 eta 2012

Iturriak: Energiaren Euskal Erakundea (EEE); Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, Enplegu eta Gizarte Politikak Saila; Eurostat eta Eustat. Egiturazko adierazleak Europa 2020

2020 Estrategia Europarra, 2010ean Europako Kontseiluak onetsia, agenda komuna da oraingo hamarraldian. Europako ekonomiaren egiturazko ahuleziak gainditzeko, lehiakortasuna hobetzeko eta gizarte merkatuaren ekonomia jasangarria bermatzeko,

hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzailea lehenesten ditu. Hona hemen bost **helburu** nagusiak:

- 1) 20-64 urte bitarteko biztanle europarren %75ek enpleguren bat eduki behar luke
- 2) I+Gko barne gastuak BPGren %3 izan beharko luke.
- 3) Klima eta energian “20/20/20” helburua lortu beharko litzateke: Negutegi efektudun gasen igorpena %20an murriztu behar da; energia kontsumoa %20 murriztu behar da; energia berriztagarrien kontsumoak %20ra iritsi behar luke.
- 4) Eskola-uzteak %10en azpitik behar luke, eta belaunaldi gazteenaren %40k gutxienez goi-mailako ikasketak burutuak behar lituzke.
- 5) EBn, pobrezia-arriskuaren helmenean 20 milioi pertsona gutxiagok egon beharko lukete.

Jarraipena adierazle nagusi batzuen bidez egiten da; horiexek landu eta bildu ditu Eustatek Euskal AErentzat.

Euskal AEk, Europar Batasuneko batez bestekoaz, bost adierazletan balio hobeak ditu: I+G barne gastua, Energia Primarioaren kontsumoa, Garai aurreko eskola-uzte tasa, Goi-mailako hezkuntza maila, Pobrezia edo bazterketa arriskuan dauden biztanleak.

Europar batez bestekoaren azpitik daude: Okupazio-tasa, Negutegi-efektudun gasen igorpena, Energia berriztagarrien kuota, Energiaren azken kontsumoa. Espainiaren osotasunarekin alderatuz gero, gure erkidegoko zifrak hobeak dira, bitan izan ezik: Energia berriztagarrien kuotan eta Energiaren azken kontsumoan.

Halere, esan beharrekoa da ezarritako helburuetarako bidean gorabeherak izan daitezkeela aztertutako urteetan, areago gaur egunekoa bezalako koiuntura ekonomikoetan; izan ere zenbait adierazle atzeraka doaz abiapuntuko balioekiko.

I+G barne-gastu gordina, 2012an, %2,12 da Euskal AEn eta %2,07 28-EBn; helburua (%3) urruti da. Espainiakoa, %1,30. Krisiagatik ere, bilakaera positiboa izan da; 2009koaren aldean 12 ehunen hobeto.

Energia Primarioaren gure kontsumoa (2008tik) eta **Energiaren azken kontsumoa** (2010etik) jaitsiz doaz. Jaitsierok, neurri handi batean, finantza eta ekonomia krisiak eragindako jarduera ekonomiko txikiagoari zor zaizkio, eta ez onuragarri litzatekeen energia kontsumitzeko eraren egiturazko aldaketa bati.

Garai aurreko eskola-uzte tasan (18-24 urte bitarteko biztanleak) eta **Goi mailako hezkuntza-mailan** (30-34 urte bitartekoak) Euskal AEko emaitzak hobeak dira EBk ezarriak baino (%10en azpitik eta %40 gutxienez); gizonen kasuan Goi mailako hezkuntza-mailan (%36,5) izan ezik.

Pobrezia edo bazterketaren arriskua hiru adierazleren konbinaketa da:

Lan-intentsitate oso urridun familia-etxeetan bizi diren pertsonak: Lan-intentsitatea %20ko atalasearen azpitik duen familia-etxe bateko pertsonak.

Transferentzia sozialen ondoren pobrezia-arriskuan dauden pertsonak: Pobrezia-atalasea horrela dago finkatuta adierazle honetarako: errenta nazional erabilgarri baliokidearen medianaren %60.

Gabezia material larriak dituen biztanleria Ondoko egoeretako lauri gutxienez aurre egin ezinik, baliabide faltaz, dauden pertsonak dira: 1) alokairua eta ohiko fakturak ordaindu, 2) etxebizitza behar bezala berotu, 3) ustekabeko gastuei aurre egin, 4) haragia, arraina edo horien adinako proteinak erregulartasunez (bi egunez behin) jan, 5) etxetik kanpo astebete pasa oporretan, 6) autoa izatea, 7) arropa-garbigailua izatea, 8) koloretako telebista izatea, 9) telefonoa izatea.

Bai adierazle konposaturako, bai osatzen duten hiruretarako, Euskal AEk tasa hobeak ditu Europar Batasuneko batez bestekoak baino. Ia bost puntu azpitik Pobrezia edo bazterketaren arrisku adierazlean: Euskal AEn biztanleen %19,9, Europar Batasunean %24,8 eta %28,2 Espainian, Eurostaten arabera. 2009ko balioen aldean lau adierazleetan atzerakadak ditugu, pobrezia edo bazterketa arriskua handitu delarik.

20 eta 64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa alde ez-positiboan da Euskal AEn. 2013koa (%66,2) puntu erdia hobe zen 2012koa baino, baina helburutik (%75) 8,8 puntutara dago, krisiaren ondorio zuzena. Igoera txikiak bai emakumeei, bai gizonei eragiten die. 2009koaren aldean, langabezia-tasa ehuneko bi puntu baino zertxobait gehiago jaitsi da. Europar Batasunaren osotasunean guztirako tasa (hamarren batez) eta gizonena (hiruz) zertxobait jaitsi dira; emakumeena hiru hamarrenez gehitu da. Espainian joera negatiboak dirau: hiru tasek behera egin dute, ehuneko puntu bat inguru, urte honetan.

Hiru adierazletan, klimatikoak, 28-EBko batez bestekoa baino okerrago gaude: **Negutegi efektudun gas igorpenetan**, 101,1eko indizea, 83,1 28-EBn. **Energia berriztagarrien kuota azken kontsumo gordinen** %7,6 da Euskal AEn eta %14,1 europar batez bestekoan. **Energiaren azken kontsumoaren indizea** 93,21 da gurean eta 92,8 28-EBn.

Aurreko urtearen aldean, Euskal AEn ia bi puntuz hazi da gasen igorpena. Energia berriztagarrien erabileraz, adierazleak pittin bat behera egin du aurreko urtearen aldean Euskal AEn (%7,6), baina urruti dago helburutik (%20), europar batez bestekotik (%14,1) eta Espainiakotik (%14,3); azken biek joera positiboari heltzen diote. 2009koaren aldean bi adierazleek hobera egin dute zertxobait.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62
[Egiturazko adierazleak Europa 2020ri buruzko prentsa-ohar gehiago](#)